



Bortzirietako Guztioak Taldea, onura publikoa duen eta irabazi asmorik gabeko elkarte da. Behar bereziak edota momentu jakin batean behar berezi bat duten Bortzirietako umeen beharrak asetzeko asmoz sortutako elkarte da. Helburua, zonaldean ez dauden terapia eta osasun arloko gaiak asetzea da, beti ere, hirietara ez maiz joan behar izateko.

05 BORTZIRIETAKO GUZTIOK TALDEA Elkartearekin solasean:

-Bortzirietan, behar bereziak dituzten haurren premiak asetzeko helburuarekin sortutako elkarte da Guztioak.

-Ez egin jakintsuarena, Sustrai. Ziur naiz ez zenuela ezagutzen.

-Eeeeee...Bortziriak? Noski, ezagutzen ditudala Bortziriak!

-Ba medikuek ez dakite Bortziriak non dauden. Beti Iruñera joan behar izaten dugu.

-Iruñera? Ez da izango!

-Ezetz? Galdetu Noari.

-Non erosten duzu ogia, Noa?

-Herriko okindegian.

-Eta non jostatzen zara?

-Herriko lagunekin...

-Dena herrian egin badezakezue, zergatik ezin duzue terapia herrian jaso?

-Aizu, Sustrai, jakintsuarena?

-Bai, jakintsuarena egitea gustatzen zait eta jolastea, eta kantatzea...Kantatuko dugu?

-Bai! Guztiontzat!



06 GUZTIONTZAT

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Sustrai Colina

Ahotsak: Estitxu eta Petti

Ezin bada dantzatu ilargiarekin,
 baietz egin elkarrekin.
 Hodeiak barre egin du, izarrak garrasi:
 "Dantzan hasi! Gertatzen ez dena gerta arazi!"
 Bai, bai, bai, bai, bai, amestu ta bai! Bai, bai, bai, bai, bai,
 ausartu ta bai! Bai, bai, bai,
 bai, bai, gertatu da bai!

Zutitu, erori eta zutitu berriro;
 putzuan salto egin eta gailurra igo.
 Zuk niri, nik zuri, eman eskua elkarri:
 Bidean, airean, mugarik ez jarri.

Zeru bat behar bada egiteko hegan,
 baietz eman elkarrengan.
 Begiak zerura so itsutzen badira, eman bira:
 desira beldurra jaten ari da.
 Bai, bai, bai, bai, bai, bai, sentitu ta bai! Bai, bai, bai, bai,
 bai, askatu ta bai! Bai, bai, bai, bai, bai, aldatu da bai!

Zutitu, erori eta zutitu berriro;
 putzuan salto egin eta gailurra igo.
 Zuk niri, nik zuri, eman eskua elkarri:
 Bidean, airean, mugarik ez jarri.